

Julen Azpeitia

IRAKASLEA

Bolonia

Platanoak jaten dituen jende ugari dago Euskal Herrian. Era guztietako platanook. Gaurkoan, arruntez hitz egiten ari naiz. Baina, hemen, jakingo duzueenez, inork ez ditu jasotzen.

4X4 ederrak ikusten dira gure mendietan, baina erregaia ere kanpotik dator. Bestalde, zenbait ospakizunetara hurbildu beharrik ere ez dago, jendeak janzen dituen trapuen arteko norgehiagoka imajinatzeko; eta, hemen, zaharrenek bakarrik dakite jostun lanaz.

Kontsumitu egiten ditugun gauza gehienek nekean ez dugu parte hartzen, eta, egia esan, horietako gauza dezentek ordaintzen duguna baino askoz gehiago balio du. Pertsonen bizitzaz ari naiz, eta ez gara konturatzen, gu ez. Munduko hiritar gehientzat, ordea, oso ongi bizi gara hemen, erailketa hutsean. Dena den, kriston guayak garenez, badaezpada, nahiago dugu gure koadrilatan etorkinik ez egotea goiko lerroetan esandakoaren funtsezko esanahiaz jabetzea baino.

Proba egizue bestela: hitz egiezu gure parke eta gozotegietako amatxo ultraeskuindar horiei munduko beste lekutako pertsonen baldintzez. Zinemaldiko



KAREN MEYER

zein pelikulaz ari zareten galdetuko dizue. Honek ez gaitu harritu behar; zenbait eskalatan, hemen, denok gara kontserbadore, kontrakoa frogatzen ez dugun bitartean, behintzat. Eta artifizio ekonomiko hau guztia mantendu ahal izateko, beste gauzen artean, Bolonia!

Hortaz, unibertsitateetan ikasmaita jaitsi egingo dute, dena erraztasunak izango dira, lizentziatura lau urtetan, baina, eta hau ez dute gehiegi komentatzen, ikerketa maila ingeniariartan, medikuntzan eta abar. Nazioartekoa izanik, ezin jaitsi, herri edo kolektibo gisa, ondoko hamarkadan Asian arroza jasotzen amaitu nahi ez badugu edo etorkin brasildar gehienek lana hemen izaten, gure seme-alabek Txinan egin behar izatea nahi ez badugu.

Ondorioz, maila konpetitiboa eskuratzeko, azkenean eta halabeharrez, belaunaldi gazteek gutxienez bi urte gehiago egin beharko dute unibertsitatean, master ala dena delako kontuekin. Helduen belaunaldiak dagoeneko euren etorkizunaren zati bat merendatu egin baitu.

Platano eta guzti, aizu! ■

«
Hemen, denok gara kontserbadore,
kontrakoa frogatzen ez dugun
bitartean, behintzat. Eta artifizio
ekonomiko hau guztia mantendu
ahal izateko, beste gauzen artean,
Bolonia!
»

TXANDAN

Edu Zelaieta



Gero eta errazago onartzen dira —ditugu— seme-alabarik ez duten biko-

Hurrengo borroka (proposamen bat)

te heldu egonkorak, nahiz eta batzuetan egoista gisako etiketak egotzen zaizkien —dizkiegun—. Beste arlo batzuetan gertatu bezala, afera honetan ere hautsi bide dira molde tradizional zenbait: zorionez, guraso (ez) izatea gero eta hauu libreagoa da gaur eta hemen.

Alabaina, bizia bizitzeko ereduak ugaritzen ari diren honetan, aukera jakin batzuk hegemonikoak dira. Familiari dagokionez, bi seme-alaba dituen bikoite heterosexuala eredu orekatuena balitz bezala aur-

nauze: ez nabil kanonetik sobera urrun, hortaz. Hala ere (edo agian horrexegatik), *asmo oneko presioak* nabaritzen hasiak gara azkenaldian: “Bat izanda, bigarrenak apenas lanik ematen ez duelako”, “oraindik neskatxa falta zaizuelako”; eta abar. Marka da gero aholkuak saltzen aritzen diren mordoxka batek seme-alabarik ez izatea!

Horra, beraz, hurrengo borrokarako lelo bat: “seme-alaba bakarra hauu libre”. ■

kezten zaigu noiznahi, esaterako.

Aldarrikatzaile airean heldu banaiz ere, mutiko bat duen aita heteroa